

NOAUA! K.E.-k ekin zion jaialdiari, belaunaldi berriari keinu eginez

Sagardo Egunarekin lotura estua du NOAUA! Kultur Elkarteak. Antolakuntza lanen egoitza izateaz gain, usurbildarren egun estimatuena den honetan argitaratu baitzen 0. alea 1996an, baita sustatzaileen lehen argazkia atera ere. 25 urte bete zituen kultur elkar-te honek iaz, eta maiatzaren 22an itzuli zen 39. Sagardo Egunari ekiteko ohorea eskaini zion elkarte honi antolakuntzak, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek.

“Erreferentzialtasunak jarrai dezala beste 25 urteetan”

NOAUA!-koen izenean, lehendakari Idoia Torregarai, Alaitz Aizpurua lan taldearen partetik eta bazkideenean, NOAUA! kide gazteena, June Landaluze igo ziren ohol-tza gainera. Sagardo Eguneko lepokoak jantzi zizkieten antolatzaileek eta Pako Agudo herritarrek aurkezturiko hasiera ekitaldia abiarazi zuten, sagardo botila ireki, edaria zer-



Idoia Torregarai lehendakaria, Alaitz Aizpurua lankidea eta June Landaluze NOAUA! kide gazteena, 39. Sagardo Egunari hasiera ematen.

IDOIA TORREGARAI

“Hurrengo belaunaldiak ere gure proiektura bat egitea nahiko genuke”

bitzatu eta topa eginez. “Gora NOAUA! eta batez ere gora Sagardo Eguna!”, adierazi zien frontoira joandakoei esker oneko, jaialdiaren itzule-ragatik antolakuntza zorion-duz agertu zen Torregaraiak.

Oso berezitzat jo zuen pozarren, NOAUA!-ren jatorria-ren urtemuga berezi hau par-

tekatzeko aukera izatea. Iaz mende laurdena bete zuen kultur elkarte honen beste 25 urteetako ibilbidea irudikatu zuen. “25 urte hauetan NOAUA! K.E.-k hartu duen erreferentzialtasunak jarrai dezala beste 25 urteetan”.

Belaunaldi berriei ere keinu egin nahi izan zien. “June bezalako bazkide gazteak eta hurrengo belaunaldiak ere gure kultur proiektura bat egitea nahiko genuke eta beraiek katebegiz katebegi jarraitzea NOAUA!ren ibilbidea”.